

ONINTZA ENBEITA



# kultura

# aldizkaria



## Aurkibidea

Editoriala (2)

Gure langileak: Enrike Iturmendi (3)

Herri txikian, handiak: Onintza Enbeita (4-5)

Euskararen jakingarriak: Euskaltzaindiaren hiztegia (6-7)

Gure ikasleak: Juan Quevedo / Txema Garcia (8-9)

Kultur Ekintzak (10-11)



Ulibarri Euskaltegiak euskara ikasteko eskaintzen dugun zerbitzuaren balio erantsia bi elementutan datza bereziki: gure irakasleengan, batetik, eta euskalduntze arloan urte askoan pilatu dugun eskarmentuan, bestetik.

Halaber, ikaste prozesuan aurrera egiteko ezinbestekoa deritzogu ikasleen komunikazio gaitasunak garatzeko aukerak sortzeari, hori xede, euskaltegiak ikasleentzat propio diseinatutako kultura programazioa eskaintzen du hiler, *Ulibarri Kulturaren bidez*. Gaur egun gure ikasleek hamaika ekimenetan parte har dezakete, hala nola, hitzaldietan, bisita gidatuetan, antzerkian, zinean, operan, bertso gosarietan, lehiaketetan, euskal jai eta ohituretan... eta abarretan.

Nolanahi ere, 2019ko martxoan gauden honetan, *Ulibarri kultura* eskaintzan jauzi kualitatiboa eman eta Ulibarri K Kultura aldizkari digitala sortu dugu.

Hala, gaurtik aurrera [www.ulibarri.eus/ikaslea/aldizkaria](http://www.ulibarri.eus/ikaslea/aldizkaria) helbide elektronikoan izango duzu eskuragarri. Aldizkariak, kulturarako leihoa izateaz gain, euskarari eta euskaltegiari buruzko informazio ugari emango dizu aldiro, eta, era berean, hamaika elkarrizketa interesgarri eta kultura proposamen ezin erakargarriagoak eskainiko dizkizu.


Badakizu esaera zaharrak zer dioen: Dabilen harriari goroldiorik ez! Beraz, erabili nahierara *Ulibarri K Kultura* eta gozatu euskara ikasteak zabaltzen dizun mundu berriaz!

# Kultura

# Gure Irakasleak: Enrike Iturmendi



Enrike Iturmendi  
Bilbotarra  
60 urte  
Ulibarriko Autoikaskuntzako arduraduna



Euskara irakaslea, didaktika burua eta autoikaskuntzako arduraduna izan da Enrike Iturmendi, besteak beste, helduen euskalduntzean egin dituen 40 urteko ibilbide luzean.

Azken 18 urteak Ulibarri Euskaltegiko Autoikaskuntzako arduradun aritu da, eta haren gidaritzapean euskaltegiko ikasleen baloraziorik onenak lortu izan ditu autoikaskuntzak urterik urte.

## Noiz hasi zen Ulibarri Euskaltegia autoikaskuntza eskaintzen?

Autoikaskuntza 2000 urtean sortu zen Ulibarrin eta ni hurrengo urtean hasi nintzen bertan lanean, 2001ean. Egun, Ulibarriko autoikaskuntzak 160 ikasle inguru ditu, euskaltegian bertan, eta aparte beste enpresa batzuetan ere baditugu autoikaskuntzako ikasleak. Orotara, 200 ikasle ditugu, batez beste.

## Nolako bilakaera izan du autoikaskuntzak 19 urte hauetan?

Hasieran programa euskaltegian bertan bakarrik erabili ahal zen, ordenagailuetan instalatuta zegoen lehendabiziko programa hura, eta ez zegoen hemendik kanpo erabiltzerik. Muntatu behar izan genituen berton 30 ordenagailu, bulego guztia ordenagailuz lepo! Eta ikasleak txandaka etortzen ziren bertara. Handik urte batzuetara programa disko malguetara pasatu zen, eta ostean CDetara. Hori izan zen aurrerapen handia! Ikasleek programa etxean instalatu ahal izan zuten unea. Eta azkenik, Internetekin jauzia izugarria izan zen!

## Zertan datza autoikaskuntza?

Nik beti esaten diet matrikulatzen diren ikasle berriei autoikaskuntzak hiru zutabe dituela: alde batetik, boga programa; beste alde batetik, tutoretzak; eta hirugarrenik, talde saioak. Hiru zutabeak betez gero eta hiruretan lan eginez gero, C1 atera daiteke seguru.

## Baduzue ikasle bitxiren bat?

Beti izan ditugu atzerrian ikasleak. Kasurako, gogora datorkit orain Herbehereetako ikasle bat. Azken boladan izan dugun kasurik bitxiena eta txalogarriena bilbotar batena izan da. Biolin irakaslea da Granadan. Ikasle honek ez zekien euskara batere ez, zerotik hasi zen gurekin euskara ikasten. Prozesu guztia Granadatik Skype bidez egin du, Boga programa erabiliz eta on line bidezko konexioaz. Autoikaskuntzan lanean C1 agiria lortu duen arte. Ikaslea, sevillar batekin ezkondu da eta orain emaztea da gurekin euskara ikasten ari dena autoikaskuntzan C1 lortzeko. Txalogarria benetan!

Enrikeren kasua  
bitxia bezain polita da,  
euskaldun berria izanik,  
Ulibarri Euskaltegian ikaslea izan zen,  
1976. urtean. Gerora beste euskaltegi  
batzuetan euskara ikasten ibilitakoa da,  
euskara ondo-ondo ikasi zuenean, mailarik  
altuena lortu zuenean, Ulibarrira irakasle  
buelatu zen 1982an.  
Harez geroztik, euskara irakaslea izan da,  
ikasketa burua, eta autoikaskuntzako  
arduraduna. 37 urte Ulibarri Euskaltegian  
lanean aritu ostean, erretiroa hartzeko prest  
omen dago. Ondo merezitako atsedena izango  
da, duda barik, baina  
Enrike ezagututa proiektu eta saltsa  
berrietan ibiliko da buru belarri.  
Ulibarri Euskaltegiko  
profesional handiari zorte on  
erionka berrietan!



# Herri txikian, handiak

## Onintza Enbeita

Inon bada euskal emakume poliedrikorik, bistan da Onintza Enbeita dela. Bertsolaria eta kazetaria, 2018ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako lehenengo emakume garailea, BERRIA egunkariako eguneroko zutabe-egilea, ETBko aurkezlea eta, hori guztia gutxi balitz bezala, Gernikako Azokan saltokia du familiako baserriko barazkiak saltzeko, beste mila eginkizunen artean.



**Eginkizun hauetatik guztietatik zeinek definitzen zaitu ondoen?**

Umetatik beti izan ditudan zaletasun bi dira: bertsotan aritzea eta idaztea.

Beti esaten dut batez ere bertsolaria naizela. Ni bertsolari sentitzen naiz. Zer daukan bertsoka? Bertsoka bat-batekoa dela eta, asmatzen duzunean, kasik-kasik magikoa da. Baina niretzat politena eta ni eroso sentiarazten nauena idaztea da. Nahiko lotsatia izan naiz ni, idatzitako testuak publikatzeko. Zerbait idaztean, idazten duzun hori hor gelditzen da, eta luzaroan iraun dezake, erantzukizun handia da. Gustura egiten dudana da idaztea.

**Aditu askoren ustez, euskal emakumea orain arte estereotipatuta egon da. Zuk, berriz, XXI. mendeko euskal emakumearen profila duzu: eginkorra, konprometitua, famatua, mediatikoa, modernoa, aurrerakoia, konplexurik gabea... Zer iritzi duzu?**

Beno, nik ere konplexu batzuk baditut. Kontua da gure emozioen lagun egin behar garela, gure beldurren lagun, lotsaren lagun eta gure konplexuen lagun. Euskal emakumearen estereotipo bat egin digute: emakume lehorrak garela, emakume gogorrak garela... orain badirudi, publikoki gozogo, zabalago agertzen garen emakumeak, horiek garela modernoak, burua zabalik daukagula eta orain arte egon diren guztiak ez.

Badakit euskaldunentzat emozioei buruz hitz egitea, sentimenduei buruz hitz egitea, ez dela inoiz izan euskaldunaren prototipoa. Jendartearen aurrean hauskor agertzea nahita egiten dut, aldarrikatzea interesatzen zait, iruditzen zaidalako iraultzailea dela.

**Batzuen aburuz, euskara ikastea beste mundu baterako leihoa izan daiteke. Zer uste duzu?**

Hizkuntza bakoitzak mundu bat esplikatzen du. Gaztelaniz esaten baduzu "zaguan" eta euskarara itzuli nahi baduzu, esan behar duzu "etxeko atari bat da, baina atari biribila, eta barruan beste..." azalpen ugari eman behar dituzu. Baina gaztelaniz esatean badago iruditeria bat, eta mundu guztiak badaki zer ari zaren adierazten: udako gau bat Andaluzian, patio zoragarri batean.

Zelan esplika diezaiokegu guk bertsolaritza bera kanpoko bati? Ahozko tradizio bat, mendeetan iraun duena, inprobisatu egiten duena... hamaika paragrafo behar dituzu ondo azaltzeko. Guk esaten badugu bertsolaritza, badakigu zertaz ari garen eta hor sintetizatzen da mendeetako lana. Hori interesatzen zait hizkuntzetatik.

Euskaraz berdina da. Euskaraz hitz egiten dugunean, mundu bat esplikatzen dugu, mundu sinboliko bat, bizitzeko mundu bat, kultura bat. Euskal Herrian bizi zara eta hemen daukazu mundu bat zuretzat, ateak irekita, eta zu ari zara ate hauen aurretik pasatzen etengabe, barrura sartu gabe. Sartu eta ikusi!!

# Kultura

# Onintza Enbeita

**Zein da zure esperientzia pertsonala?  
Zer eman dizu zuri euskarak?**

Niri den-dena eman dit, neurri batean, euskarak. Munduan egoteko modu bat, mundua ulertzeko modu bat. Euskarari esker kolektibo bateko parte sentitzen naiz, euskaldunon kolektiboaren parte. Ni gizona izan banintz, ondo; kazetaria izan barik, kimikaria izan banintz, ederto; bertsolaria izan beharrean, futbolaria izan banintz, itzel; baina ezin dudana imajinatu da euskalduna ez banintz. Neure burua ulertzeko modua euskara da, eta nire munduan egoteko modua euskara da.

**Elkarrietzeta hau Ulibarriko ikasleentzat propio prestatu dugu, euskararen ikaste prozesuan ari dira buru-belarri, zer esango zenieke bide horretan laguntzeko, animatzeko?**

Klixetan ez sinesteko, ez dela egia euskara zaila dela, eta lehenengo egunetik hitz egiteko, nahiz eta gaizki egin. Hitz egiteko lotsarik gabe, euskararik txarrena hitz egiten ez dena delako. Hortik aurrera pauso bakoitza opari bat bezala bizi dezatela.

**Onintza, zer emango die gure ikasleei euskara ikasteak?**

Dudarik gabe, mundu berri bat zabalduko zaie eta konturatu egingo dira mundu berri hori urrutira bidaiatu gabe etxe ondoan izango dutela. Horrek ez du esan nahi orain bat-batean guztiei gustatu behar zaiela euskal literatura, bertsolaritza... Baina euskarak orain arte beraientzat urrutikoa zen mundu bat zabalduko die eta hori garrantzizkoa da.

Hizkuntza bakoitzak ate bat irekitzen du. Munduko edozein hizkuntzak, txikiak ere bai, eta ate horretan sartzea, nik uste dut, "apasionantea" dela.



Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

**Bizkaiko Bertsolari Txapelketa  
irabazi duen lehen emakumea**



Onintza Enbeitak 2018ko abenduan irabazi zuen Bizkaiko Bertsolari Txapelketa eta haren osaba Jon Enbeitak jantzi zion ibilbide luze baten ostean ondo merezitako txapela. Bizkaiko lehenengo emakume txapelduna.

Nire bizitzan ezusteko onak etorri dira, espero ez nuenean. Benetan pentsatzen nuenean txapelketen aroa amaitzen ari zela niretzat, txapela etorri zen. Txapelak ustekabeen harrapatu ninduen, oso pozik, kristoren euforia! Poz handia ematen dit, ikusten ari naiz zenbat jende poztu den, zer-nolako onarpena eta zilegitasuna aitortu didan jendeak, zenbatek esan didan "Nork eta zuk izan behar lehenengo emakumea!", eta hori gauza handia da. Hogei urte baino gehiago daramatzat bertso plazetan, eta ikusteak bertsozaleak onarpena eman didala, hori baino sari handiagorik ez dago.

Enbeita abizenak pisu handia du Bizkaiko bertsolaritzan. Balentin Enbeitak, Onintzaren aititek, 1958 eta 1959an irabazi zuen txapela; Jon Enbeitak, Onintzaren osabak, 1990 eta 1992an, eta 2018an Onintza Enbeitak berak. Finaleko azken agurrean familiakoak gogora ekarri zituen Onintzak, "Zuen altzoan egin naz, ni neska bat ahaldua".

**Jakingo duzu txertatzen oinak bertsoan?**

"Balentin zu izan zinen  
gurean lehen \_\_\_\_\_  
gero etorri zan osaben  
ta lehengusuen \_\_\_\_\_  
orain etxeko txikia  
bihotza ostu \_\_\_\_\_  
makila eskuan dago  
erdi negarren \_\_\_\_\_  
16 urtetik plazan  
gaur lora, bihar \_\_\_\_\_  
zuen altzoan egin naz ni  
neska bat \_\_\_\_\_  
sentituarazi nozuen  
hain etxeko \_\_\_\_\_  
plazaz plaza bueltau nahi dot  
jaso dodan \_\_\_\_\_".

OINAK: tuntuna, kuttuna, eguna, ahaldua, maitasuna, txapelduna, asuna eta eutsuna.

Erantzun zuzenak Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalaren bideoaren estekan aurkituko dituzu: <https://www.eitb.eus/eu/kultura/bertsolaritza/bertsolari-txapelketa-nagusia/bideoak/osor/6064023/bideoa-bizkaiko-bertsolari-txapelketaren-finala-2018-onintza-enbeita-irabazle/>

aldizkaria

# Euskararen Jakingarriak: Euskaltzaindiaren hiztegia

“El paparazzi transexual que vino de Urbasa de hacer trekking se dió cuenta de que era celíaco al comerse un bocadillo en el recito de txosnas del Arenal”

Ez, ez da paparazzi transexual zeliako baten berria, kar-kar!  
Albiste da Euskaltzaindiak 466 hitz berri arautu eta hiztegian jaso dituela, izenburu honetan ageri diren sei hitz barne.  
Ezetx asmatu berba horiek zein diren!

Asko eta asko euskaldunen artean maiz erabiltzen diren hitzak dira, kasurako, “Tabernaz taberna baxoerdiak hartzen ibiltzea” omen da “txikiteo” hitza. Horrela azaltzen da Euskaltzaindiaren hiztegia.

Bada ardoarekin hasi eta beste substantzia batzuetara zaletzen bukatzen duenik, maiz droga gogorren adikzioan erortzeraino. Horiek ere agertuko dira hiztegian aurrerantzean: “jonki” hitza arautu du Euskaltzaindiak, heroinazaleak deskribatzeko lagunarteko espresio gisa.


Eta hizkuntzaren alderdi drogosoan alde batera utzita, ezagunak izan arren oraindik hiztegian sartu gabe zeuden termino asko ere agertzen dira zerrendan: “piercing”, “rockabilly”, “spa”, “ketchup”, “miss”, “mister”, “manifa”, “wifi”...

Hizkuntza bizirik dago, egunero-egunero erabiltzen dugunean guztion artean berritu egiten dugu, termino berriak erabiltzen ditugunean esamolde berriak sortzen ditugu eta hiztegiak ere berrikuntza horiek bere gain hartu behar ditu.

Onartutako sarrera eta azpisarrera berrien zerrenda Euskaltzaindiaren webgunean kontsulta daiteke:

<https://www.euskaltzaindia.eus/dok/plazaberri/2019/urtarrila/aldaketak.pdf>

Iturriak: Argia eta Euskaltzaindia



K  
kultura



# Euskararen Jakingarriak: Euskaltzaindiaren hiztegia

## Euskaltzaindiak hiztegia arautu berri dituen hitzak



Euskal literaturako idazle ezagunen liburuen pasarteak baliatu ditugu hutsuneetan hitz egokia aukera dezazuen. Haien artean, bat baino gehiago izan daiteke zuzena, baina zuzenen artean bakarra da Euskaltzaindiaren hiztegia onartu berria. Baietz asmatu!



**Soinujolearen semea**, BERNARDO ATXAGA (Pamiela, 2003):  
Han zutik jarrita, atzean Obabako haran guztia zuela, argazki baterako .....  
ari zela ematen zuen.

- a) paratzen      b) kokatzen      c) posatzen

**Urregilearen orduak**, PAKO ARISTI (Erein, 1998):  
Lotsagarria, benetan, misterioaren eta ..... osagarri guztiak zeuzkan gertaera  
bat izateko.

- a) jakinminaren      b) jakin-minaren      c) morboaren

**Korapiloak**, JASONE OSORO (Elkar, 2001):  
Telebista, oinetakoak, autoa edo telefono ..... izateak dena soluzionatuko balu  
bezala.

- a) mugikorra      b) mobila      c) sakelakoa

**Berandu da gelditzeko**, UNAI ITURRIAGA (Susa, 1999):  
Kanutoak egin, birrak edan eta ..... guztietara joatea zituen hiru  
betebehar nagusiak.

- a) manifa      b) manifestazio      c) manifestaldi      d) manifestazino

**Europako mugetan barrena**, EDORTA JIMENEZ (Txalaparta, 2000):  
Trajedun horien aldean hemengo batzuk igande goizean lagunekin ..... joateko  
moduan jantzita etorri gara.

- a) poteoan      b) txikiteoan

**Larunbatak**, JON ARRETXE (Elkar, 2001):  
Pisuko gastuak ere ezin nituen eraman euskaltegiko soldatarekin, eta mortadela  
merkeko ..... baino ez nituen jaten ia, ez pizzarik ez biziorik.

- a) bokadiloak      b) ogitartekoak      c) bokatak

**Lagun izoztua**, JOSEBA SARRIONANDIA (Elkar, 2001):  
Ontzien sarrera eta deskarga ikusi nahi nuen, kargagatik uretan ondo sartuak heltzen  
zirenak, baina geroago hasiko ziren, biharamunean igual, garabien, .....,  
estibadoreen mugimenduak.

- a) kontainerren      b) eduki-ontzien      c) edukiontzien

# aldizkaria

# Gure ikasleak



Juan Quevedo  
Alacantekoa  
37 urte  
Ulibarri Euskaltegiko ikaslea, A2 maila

Zortzi hilabete besterik ez daramatza Euskal Herrira bizitzen. Juan erizaina da eta lan egitera etorri da Bilbora. Oso gustura omen dago gure artean eta Bilbo oso gustuko duela dio.

**Zer egiten du Alacanteko mutil batek Bilbon?**  
**Zelan moldatzen zara gure artean?**  
Lanagatik etorri naiz Bilbora. Oso ondo nago hemen. Ohituta nago, leku askotan bizi izan naizelako.

**Zein herritan bizi izan zara?**  
Herri askotan, adibidez: Londresen, Dubain, Maltan eta Mozanbiken bizi izan naiz. Guztietara lanera joan naiz. Dubain, adibidez, bi urtez bizi izan nintzen eta hegazkineko laguntzaile egin nuen lan.

**Bilbora etorri zara eta zein izan da berton euskara ikasteko arrazoia?**  
Nik beti tokiko hizkuntza ikasi izan dut. Maltan bizi nintzenean, maltera ikasi nuen. Euskara ez da desberdina; horregatik, Bilbora etorri naizenean, euskara ikasten hasi naiz.

**Zenbat hizkuntza ezagutzen dituzu?**  
Nire curriculumean orain bost hizkuntza agertzen dira.

**Ena! Eta zeintzuk dira?**  
Gaztelania, ingelesa, italiara, portugaleria eta katalana. Maltera oso zaila da, eta euskara oraindik ez dut curriculumean jarri, kar-kar-kar.

**Txalotzekoa, benetan! Noiz hasi zara euskara ikasten?**  
Duela 8 hilabete bizi naiz Bilbon eta duela 4 hilabete hasi nintzen, Ulibarri Euskaltegian.

**Eta zer moduz moldatu zara euskararekin?**  
**Esaten duten bezain zaila iruditzen zaizu?**  
Bai, oso zaila da, batez ere hasieran. Ni zerotik ikasten hasi nintzen, eta ez nuen ezer ulertzen. Baina orain pozik nago, euskaraz hitz egiteko gai naizelako.

**Euskara ikasteak zer ematen dizu zuri?**  
Batetik, tokiko kultura ezagutzea eman dit, eta bestetik, espero dut lanean egonkortasuna lortzea. Ni erizaina naiz eta Osakidetzan lan egiteko euskara behar dut.

**Kalean, lagunekin, lankideekin euskaraz hiz egiten al duzu?**  
Ez, ez, oraindik ez.  
Eta nire lagunarekin ere ez.  
Eta lanean ere ez.  
Gehiago praktikatu behar dut kar-kar-kar.



# Kultura



# Gure ikasleak



Txema García  
Bilboko, Errekaldekoa  
43 urte  
Ulibarri Euskaltegiko ikaslea, C1 maila

Magisteritza eta psikopedagogia ikasi zuen eta egun irakasle ari da akademia batean eskolak ematen. Inoiz lanerako beharko duelako gogotik ari da Txema C1 titulua eskuratzeko lanean. Baina euskara ikasteko bide horretan beste gauza asko ere bereganatu ditu.

## Txema, zu Ulibarri Euskaltegian ikasle beteranoa zaitugu, ezta?

Bai, bai, orain dela 10 urte hasi nintzen euskara ikasten, eta horietatik 9 urte bertan eman ditut, Ulibarri Euskaltegian. Gazte-gazte hasi nintzen eta orain beteranoa naiz, bai, kar-kar.

## Zelakoa izan da zure ikaste prozesua?

Hasiera-hasieratik hasi nintzen, lehenengo kurtsoak oso ondo egin nituen, nik beti eduki dut hitz egiteko erraztasuna, ez naiz kikiltzen, eta "hanka sartu" arren ez daukat arazorik euskaraz hitz egiteko. Eta hori oso lagungarria izan da. Geroago, gehiago kosta izan zait B2 lortzea.

## Orain C1 agiria lortu nahi duzu?

Bai, egunero klasera nator bi orduko ikastarora, goizeko 8:00etatik 10:00etara. C1 ateratzea kostatzen ari zait. Niretzat nahiko esfortzu handia da zenbait arrazoiengatik: denbora gutxi dut, lan egin behar dut... Nire ingurua erdalduna da eta kosta egiten zait euskara erabiltzea.

## Zergatik aukeratu duzu Ulibarri Euskaltegia?

Behar dudana ematen didalako. Lagunek noizbait esan didate: "Txema, ez duzu gainditzen... Igual, aldatu behar duzu, ezta?". Baina ni pozik nago, gustatzen zait nola ematen diren klaseak, nola erabiltzen den metodologia. Nik hasiera batean, beste euskaltegi batean ikasi nuen eta gauza batzuk onak ziren eta beste batzuk txarragoak ziren. Horregatik erabaki nuen aldatzea, Ulibarrin hasi nintzen eta, hemen pozik nagoenez, bertan jarraitzen dut.

## Asko pozten gara!

## Egia da euskara oso hizkuntza zaila dela?

Hitz egiteko ez, baina azterketa gainditzeko bai. Argi daukat niretzat hori erronka handia dela, azterketa bat gainditzea. Zurekin edo beste pertsona batekin hitz egitea erraztasunez egiten dut, baina azterketa egitea niretzat hori da zailena. Eta horretan nago! Ea proba hori gainditzen dudan!

## Zerk nabarmenduko zenuke urte hauetako esperientziatik?

Lagunak. Euskaltegian egindako lagunak. Ikasle batzuek Ulibarri Euskaltegian elkar ezagutu genuen orain urte batzuk eta oraindik eusten diogu harremanari. Beraiekin hileroko hitz egiten dut, beti euskaraz, gure lotura euskaltegia eta euskara delako. Hiru-lau pertsona gara, oso harreman sendoa dugu. Lagun onak.

# Kultur Ekintzak



**SANTO TOMASAZK. 2018/01/21**

Santo Tomas Euskal Herriko eta herri askotan egiten den baserritarren azoka dugu. Egun horretako ohiturak ondo ezagutzen ditu **Maite Sainz de los Terreros** ikasleak, bera izan da zozkatu dugun euskal produktuz osatutako otzararen irabazlea. Zorionak, Maite!


**DONOSTIAKO DANBORRADA. 2019/01/20**

Raimundo Sarriegiren kantuz eta danbor hotsez betetzen dira urtero Donostiako kaleak. Gure herrian oso sustraituta dagoen tradizioa ondo ezagutzen al duten galdetu diegu ULIBARRIko ikasleei. Galdetegia bete duten ehunka ikasleren artean, hona hemen gure irabazlea: **Luis Mari Ormaetxea**, usurbildarra! Bi lagunentzako menu goxoa irabazi du. Zorionak!



**AZKUNA ZENTROA. 2019/01/24**

Azkuna Zentrora bisita gidatua egin dugu, Alondegiaren historia eta arkitektura ezagutzeaz gain, Bilboko eraikin esanguratsua ezagutzeko aukera paregabea izan da hau.



# Kultura



### AGATE DEUNA. 2019/02/04

Euskal Herriko herri eta auzoetan,  
otsailaren 4an,  
Agate Deuna bezperan,  
kalean ibiltzeko ohitura dugu etxez  
etxe kantuan santa-eskean.

ULIBARRI EUSKALTEGIAN  
ere tradizioari jarraituz, kantatzeari ekingo diogu.  
Makila eskuan eta ahotsak ondo berotuta,  
Agate Deunako koplak lagun artean kantatu ditugu.  
"Zorion etxe hontako denoi, oles egitera gatoz..." 🎵



### EUSKAL MUSEOA. 2019/02/14

Bilboko Zazpi Kaleetan dagoen  
Euskal Museora bisitan joan  
dira Ulibarriko sei talde.  
XVII. mendeko eraikina bera ezagutu  
eta bertan gordetzen den erakusketa  
iraunkorra ikusteko aukera izan dute:  
Mikeldia, kartografia historikoa,  
buztigintza eta euskal  
ondarearen altxor asko.

### EUSKAL PIROPOAK. 2019/02/15

Piropo lehiaketa klasiko bihurtu da Ulibarri  
euskaltegian, parte hartu nahi duen ikasleak  
euskaraz asmatutako piropoa besterik ez du  
idatzi behar. Helburua euskararen erabilera  
modu sortzaile, adierazkor, ez sexista eta  
ludikoan erabiltzea da.  
Ikasle askok hartu du parte eta urterik urte  
piropoak gero eta originalagoak dira.  
Hemen dituzue originalenak eta  
dibertigarrienak.

"Hau neska-mutil katxarroa!  
Zu gaur ganean  
izar jantziz gero,  
ni astronauta jantzita  
ilargiratuko naiz zurekin"  
Julio Villalva

Geure euskara irakaslearentzat:  
"Aditzen zoramenetik  
kulturaren gozamenera  
eramaten gaituen  
sua zara"  
Maga Peset Caminos

"Musu bat emango dizut  
eta kuleroak eroriko  
zaizkizu bapatean".  
Francisco Javier Gonzalez García

"Soka izan nahi nuke  
zuri lotuta bizitzeko eta  
puenting egingo bazenu,  
nik zainduko zintuzket"  
Lide San Martín García

# aldizkaria



aldizkaria



kultura

2019